



Ilarrarekin pintxo ederrak egiten dira pasa den urtekoa bezalaxe.

[albisteak](#)//VI ILAR EGUNA

## Baratzen bisita eta azoka berezia gaur eta bihar, ilar jardunaldietan

Baratzen bisita gidatua egingo da, 11:00etan, kontzejupetik abiatuta eta ondoren ilar dastatzea dago Roxario Jatetxean. Bihar egongo da azoka, goizean zehar, Foru Plazan.

### ASTIGARRAGA

2017/05/06 00:00 Larunbata

Ostegunean ilarrarekin egindako pintxorik hoberena aukeratu zuten astigartarrek eta atzo ikasleek baratzen ekoizten ari diren ilarrarik gustokoena aukeratu zuten. Ilarraren jardunaldiak ez dute etenik eta VI. Ilar Egunak gaur eta bihar beste bi ekitaldi nagusi izango ditu. Astigarragako Baratz Elkartek, Behemendik eta Udalak elkarlanean gaurko eta biharko bista gidatua, hitzaldi-tailerra, ilar dastaketa eta azoka berezia antolatu dituzte. Gaur, 11:00etan, baratzen bisita gidatua egongo da udaletxeko kontzejupetik abiatuta. Bertan, Baratz

# gurean.eus



 PDF

**HERNANI**  
Maiatzak 8

### ESKELAK

#### HERNANI

*Joxe Adarraga  
Urnieta*



### Agenda Bateratua

//Erabiltzaileak



Elkarteko kideak azalpen guztiak emango dituzte eta ondoren ilar-dastatzea egingo da Txaro Zapiain eta Roberto Ruiz sukaldariak gidatuta. Hazien pribatizazioari buruzko tailerra egongo da Haziera-ren eskutik. Marc Badal kataluniarrak emango du tailer benetan interesgarria.

Ilar dastaketa doan da, baina izena eman behar zen. Eta ondoren, ilar menu berezia ere egingo dute, Roxario jatetxean, 14:30etan. Txartelak salgai jatetxean bertan (943 55 11 38 edo info@roxario.com) edo donostialdea-@behemendi.eus.

### **Azokan Euskal Herriko produktu desberdinak**

Ilar Egunari edo hobe esanda Ilar jardunaldieri amaiera bihar igandean emango zaio azoka berezi batekin. Ilarrak eta produktu desberdinak egongo dira salgai eta haurrentzako talo tailerra dago Foru plazan.

Behemendi Elkarteak Euskal Herriko produktuak jarriko dituzte salgai ilarrekin batera. Artisau ogia, txerrikiak, txokolateak, pastak, gazta, arrai kontserbak e.a.. 11:00etatik 14:00etara egongo dira ipinita postuak.


### **Ilarra bere balioan jarri nahi da**

Roberto Ruiz sukaldariak esan berri du sukaldeetan gero eta balio eta balore gehiago hartzen ari dela ilarra. «Balio erantsia duen produktua da. Nola lantzen den ere berezia, ez da merkea baina balore haundikoa.

Baserriarekin lotutako produktua da eta horrek oraindik ere balore haundiagoa ematen dio».

Txaro Zapiain, Baratze Elkarteko presidentea, eta Roberto Ruiz (Frontón Jatetxea), Baratz Elkarteko ordezkariak, Behemendiko ordezkaria eta Zorione Etxezarraga alkatea eta Urkiri Salaberria zinegotziak ilarraren balioa eta eguna goraiatu dute. Alkateak azpimarratu zuen «ilarraren egunari garrantzi haundiago eman nahi diogu. Herritik sortu den ekimen bat da eta horrexegatik indartu behar da. Herritarren proiektu bat eta herritarren onurarako martxan dago eta hori jakinarazi behar diogu».

### **Datorren urterako nazioarteko azoka izatea nahi da**



## **Puri-Purian**

*Salaketa (1)*

«Jai Batzordea zoriondu ... (2)

## **Gida komertziala**



Komertzio bat bilatu

Bilatu



Txaro Zapiainek hartu zuen hitza eta datorren urterako «nazioarteko azoka bat antolatu nahi dugu» adierazi zuen. Baratz elkaterko kide den Periko Garmendiak esan zuen «Zaragozako hazitegi biltegitik Azkoitiko eta Arrasateko ilar haziak hartu eta Astigarragako ilarra sortzeko lanean ari gara. Herri eskoletako ikasleek 16 ilar mota dastatu zituzten eta zeintzuk diran hoberenak kontutan hartuko ditugu. Beraien iritzia garrantzitsua da».

Baratze Elkarteak Beizamatik datorren barietate bat landatu dute, Uztaro izenekoa. «Bertako kooperatiba bat da eta horregatik izen hori. Madrilgo familia batek ekarria da eta eta hiru metrotako sastraka izatera iristen da. Beste bizitza mota bat egiteagatik joan ziren Madriletik eta Beizaman bizitzen jarri». yy



Txiokatu




Inprimitu

## IRUZKINAK

Sentitzen dugu, erabiltzen ari zaren nabigatzailea ez da bateragarria bateragarria:

- [Firefox](#)
- [Chrome](#)
- [Internet Explorer 11+](#)
- [Safari](#)



## Iragarki merkeak

*Eskaintza berezia: betazaletako permanentea, 25€tan. Egunero, Josune Quintanilla Estetika Zentroan (Nafar Kalea, 19)*

**Telefonoa: 943247471**

*Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura... (Agustindarren plaza, 4)*

**Telefonoa: 943332894**

+ Ikusi

Tweets por @KronikaNet

gur



**Azpeiti  
17an E  
Eguna**

GUREA





## Deniba domina txapelketa

Gaur	Bihar	Etzi
		
17°	19°	22°
9°	10°	15°

[Aemet](#) eskaintako datuak

## Azken argazkiak



Korrika Ttikia 2017 Go...



Korrika 2017 Astigarragan



Korrika 2017 Hernanin



Mikro Korrika 2017




Korrika Txikia 2017




Dino Korrika 2017

## Azken bideoak



Azkeneko bideoak, web orrian




Azkeneko bideoak, web orrian




Azkeneko bideoak, web orrian



Azkeneko bideoak, web orrian



Patxi Zabaletaren hitzaldia, herritarren ...



Patxi Zabaletaren hitzaldia, herritarren ...

ARGITARATZAILEA



ZEIN GARA



KONTAKTUA

Larramendi kalea 11 - Hernani 20120  
Telefonoa: 943 33 08 99 / 688 660 714  
E-maila: [kronika@kronika.eus](mailto:kronika@kronika.eus)  
[astigarraga@kronika.eus](mailto:astigarraga@kronika.eus)  
[urumea@kronika.eus](mailto:urumea@kronika.eus)



LAGUNTZAILEAK



Legezko oharra